PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE ERRENTERIA

Diciembre 2025

Documento "1. MEMORIA".

"1.4. EVALUACIÓN DEL IMPACTO LINGÜÍSTICO"

Se incorpora seguidamente el informe emitido en relación con el proceso por los servicios técnicos municipales.

En Donostia/San Sebastián, diciembre de 2025

Fdo: Santiago Peñalba Iñigo Peñalba Mikel Iriondo

ERRENTERIA
UDALA

TXOSTENA

ERRENTERIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAren BERRIKUSPENAREN ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

1. SARRERA

1.1 AURREKARIAK

- 2014an eta 2015ean Foru Aldundiak eta UEMAk antolatutako Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldien ondoren sortu zuten ELE tresna (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa), ingurumen-eragina neurtzen duen Sin Canter izeneko metodologia eta Galesen erabili izan den galdetegi bat oinarrian hartuta.

ELE azterketa aurrerapauso bat da euskararen geroa bermatzeko norabidean, arnasguneetan bereziki eta udalerri guztietan oro har. ELEren bidez, Udalak aztertu ditzake plan eta proiektuek euskararen egoeran izango dituzten eraginak eta, negatiboak izanez gero, zein neurri zuzentzaile ezarri ere bai.

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) 7. artikuluak toki erakundeen eta udalen eskumenak xedatzen ditu euskararen erabilerari dagokionez. Zehazki, 7. 7 artikuluak hauxe dio:

> "Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira".

Gaztelaniazko bertsioan, berriz, hauxe:

> "En el procedimiento de aprobación de proyectos o planes que pudieran afectar a la situación sociolingüística de los municipios se evaluará su posible impacto respecto a la normalización del uso del euskera, y se propondrán las medidas derivadas de esa evaluación que se estimen pertinentes".

Hori horrela, 2016ko ekainaren 29an hutsen zuzenketa argitaratu zen EHAAn, eta "Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina..." zioen tokian "Udalen egoera soziolinguistikoan eragina..." esan behar zuela jaso zen.

Hasiera batean udalerri euskaldunetan (euskaldunen portzentajea %80tik gorakoak) egin beharrekoa zela esaten bazuen ere, Legearen aldaketak udalerri guztietan egin behar dela jaso du. Hortaz, Errenteriako Udalak proiektu eta plangintzak onartzeko bideratzen dituen prozeduretan hizkuntza inpaktuaren adierazlea txertatu beharra dago gainerako adierazleekin batera.

- Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, 2/2016 Legea garatzen du eta seigarren kapituluan planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa lantzen du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 7. artikuluko 7. apartatua garatzeko. Honela dio:

> "... dekretu honetako 50. artikuluan aipatzen diren udal-eskumeneko planek eta proiektuek euskararen eta gaztelaniaren erabileran izan dezaketen inpaktua aztertu eta ebaluatu nahi da. Horrek aukera ematen du balizko hizkuntza-inpaktuari aurrea hartzeko eta hura zuzentzeko neurriak proposatzeko, gerta litezkeen inpaktu kaltegarriak saihesteko edo minimizatzeko, bai eta kasu bakoitzean egoera bideratzeko irtenbiderik egokiena bilatzeko ere. Helburua aukerarik onena baliatzea da, plan edo proiektu bakoitzak hizkuntzen erabileraren normalizazioan izan ditzakeen ondorioak aztertuta. Horretarako, planen eta proiektuen onarpenean hizkuntza-ikuspegia txertatzeko beharra ezarri da. Ikuspegi hori, bada, garapenaren eta diseinuaren hasierako faseetatik hartu beharko da kontuan".

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

ERRENTERIA
UDALA

1.2 TESTUINGURUA

Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) da Udalak datozen 15 urteetarako izan nahi duen udal-proiektua formulatu behar duen hirigintza-dokumentua, Errenteriako lurraldean hirigintza arloan garatu beharreko ekimen guztiak jasoko dituena eta ahalik eta sinergia handienak bideratuko dituena.
Hala ere, ez da espazio publikoko urbanizazioaren berezko irtenbideak zehazten dituen dokumentua, lurzoruaren erabilerak arautzeko jarraibide orokorrak finkatzen dituena baizik, jasangarritasunaren printzipioa kontuan harturik.
Txosten honen helburua da HAPOaren berrikuspenari dagokion Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) egitea, Errenteriako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezakeela aintzat hartuta.

2. ZER DA ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA? XEDEA

Eragin linguistikoaren ebaluazioaren xedea:

- Lurralde eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea.
- Horrez gain, euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzea, inpaktu kaltegarriak saihesteko edo minimizatzeko.

Aztertu nahi dena da HAPOan ezarritako irizpideek zer eragin linguistiko izango duten Errenterian, eta emaitzaren arabera egokitu eta moldatu ahal izatea irizpide horiek, eta/edo erabakitzea zein neurri kontuan hartu beharko diren proiektua gauzatzerakoan.

3. METODOLOGIA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak aipatutakoari jarraiki, eta ELE tresna (Ebaluazio Linguistikoaren Eragina) erabiliz, Errenteriako HAPO planaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin dugu, planak euskararen egoeran izango dituen eraginak aztertu eta, negatiboak izanez gero, neurri zuzentzaileak ezartzeko, edo/eta ahal den neurrian ondorio negatiboak saihestera bideratutako prebentzio neurriak ezartzeko.
Hauetxek dira jarraitu ditugun urratsak:

- LANTALDEA OSATU
  Hirigintza eta Udal Hizkuntza Politikako teknikariak:
  - Vicente Castiella, Hirigintzako aholkulari juridikoa.
  - Xabier Agirre, Hirigintza arkitekto arduraduna
  - Arantxa Zabala, Udal Hizkuntza Politikako teknikaria
- TESTUINGURUA AZTERTU
  Balorazioa egin aurretik, informazio garrantzitsua, kontuan hartzeko datuak jaso eta aztertu ditugu. Proiektuaren datu esanguratsuenetako bat etxebizitza kopurua handitzea denez, eta ondorioz horrek biztanleria handitzea ekarriko duenez, funtsezkoa da Errenterian azken urteetan biztanlerian izan den bilakaera, migrazio joerak barne, aztertzea, hazkundeak egoera linguistikoan aldaketak ekarri ditzakeelakoan. Datu horiek eta beste datu demografiko, soziolinguistiko eta

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

sozioekonomikoak jasotzeko EUSTAT eta INEko datuak aztertu ditugu, baita Udalak honi buruz dituenak ere. Bestalde, oso garrantzitsuak dira, Soziolinguistikako klusterrak egindako azterlanak, baliagarri izan baitira ebaluazioa egiteko, eta 2004an onartutako HAPOa ere.

- IRISMEN TXOSTENA bete.

  Lau urratseko ibilbidea da:

  1. Galdetegi laburra

  Edozein proiektu edo egitasmok egoera soziolinguistikoan eraginik ekarriko duen edo ez ondorioztatzeko galdetegia da.

  Hiru galdera erantzun behar dira:

  1. Planak/proiektuak izango du eraginik tokiko biztanleria kopuruan? Biztanleria kopurua igo edo jaitsiko den galdetzen da.
  2. Planak/proiektuak izango du eragin nabarmenik tokiko bisitari kopuruan? Epe jakin batean (egunero, astean zehar, asteburuetan, hilabete batzuetan,...) herrira datozen kanpoko bisitari kopuruan aldaketarik ekarriko duen galdetzen da.
  3. Planak/proiektuak herriko egoera soziolinguistikoan beste era bateko aldaketa nabarmenik eragingo du? Herritarren arteko ohiturak aldatzea, hizkuntza irizpideak aldatzea (ikastetxe bat ereduz aldatzea,...) edo egoera soziolinguistikoan eraginik izan dezakeen beste ezer aldatzea dakarren ala ez.

  Lehen bi galderetakoren bati baiezkoa erantzunez gero, datuak sartzen jarraitu behar da. Baiezkoa hirugarren galderari soilik erantzun bazaio, udalak baloratu behar du, aldaketa soziolinguistikoaren arabera, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena egin ala ez.

  Erantzun guztiak ezezkoak badira, lehenengo galdetegiarekin amaitzen da egin beharrekoa.

  2. Eremua aukeratu

  Galdetegia betetzen jarraituz gero, eremua aukeratu behar da (herria, auzoa,....). Kasu honetan herri osoan eragina izango duenez, aplikazioak automatikoki betetzen ditu emaitza eskuratzeko bete behar diren datu gehienak, EUSTATek emandako datuak baliatuta.

  3. Eremuaren datuak

  Euskararen *Proiekzio Indizea* eta *Hauskortasun-indizea* kalkulatu behar dira.

  - Euskararen *Proiekzio Indizea* (EPI): plan edo proiektu bat egin ondoren euskararen ezagutzak izan dezakeen aldaketa, positiboa edo negatiboa
  - *Hauskortasun-indizea* (HI): eremuak egoera soziolinguistikoaren aldaketa bati aurre egiteko duen gaitasuna kalkulatzen du. Eremua zenbat eta hauskorragoa izan, orduan eta eragin handiagoa izango du edozein aldaketak egoera soziolinguistikoan. Datu hauek behar dira:
    - euskaldunen ehunekoa
    - ama hizkuntza euskara dutenen ehunekoa
    - etxeko erabileraren ehunekoa
    - ESEP edo euskara planik duen
    - Euskara Zerbitzua duen

  4. Bilakaera indizea

  Behin urrats horiek eginda, azken emaitza, *Bilakaera indizea* kalkulatzen da.

  Bilakaera indizea: euskararen proiekzio indizearen eta *hauskortasun indizea*ren arteko batuketa da eta hizkuntza-inpaktuaren azterlana eta txostena egin behar den edo ez adierazten du.

  Emaitza 0 edo positiboa bada, ez da hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin behar. Emaitza negatiboa bada, berriz, azterlana egin behar da.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

- ERAGIN LINGUISTIKOAREN GALDETEGIA BETE

  Irismen dokumentuak plan edo proiektu batek eremu jakin bateko egoera soziolinguistikoan eragin negatiboa izan dezakeela ondorioztatuz gero, eragin horren neurria kalkulatzeko azterlana da.

  Hiru urrats nagusik osatzen dute azterlana egiteko prozesua:

1. ELE galdetegia: hizkuntza eraginaren ebaluazioaren galdetegi zehatza

   Eragin linguistikoa identifikatu eta ebaluatzeko balio du, zehatzago, eta proiektuak izan ditzakeen gabeziak identifikatzen eta prebenitzen laguntzen du. Aldagai hauen inguruan galdetzen du:

   - komunitatearen kultur eta gizarte bizitza
   - biztanleriaren/bisitarien euskararen ezagutza
   - biztanleriaren/bisitarien euskararen erabilera
   - jardueren/zerbitzuen komunikazioa
   - hizkuntza paisaia
   - jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintza/erabilera

2. Funtsezko alderdiei buruzko galdetegia

   Funtsezko alderdiek proiektuaren eragina saihesten edo murrizten laguntzen dute. Batzuk zuzenean ezagutza eta erabilerari lotutakoak dira eta beste batzuk zeharkakoak, komunitatearen gizarte-eta kultura-bizitzari zein elkarbizitzari lotuago daudenak. Komunitate bizitza osasuntsu batek erabilera bera hazten lagunduko du.

   Funtsezko alderdiak bost ataletan banatuta daude:

   - Proiektuaren/planaren izaerari lotutakoak(*): etxebizitzen tipologia, espazio publikoen funtzio eta erabilera mota, ekipamenduen kudeaketa eredua eta garapen sozioekonomiko zein soziokulturalaren eredua euskararen garapen positiborako egokiak al diren aztertu nahi du funtsezko alderdi honek.
   - Proiektuaren/planaren dimentsioari lotutakoak(**)(espazioan eta denboran): proiektuak ekarriko duen hazkundea, berau garatzeko beharko den denbora eta okupatuko duen espazioa hizkuntzaren garapen positiborako egokiak al diren jasotzen du.
   - Proiektuaren/planaren lekukotzeari lotutakoak(***): proiektua edo jarduera garatuko den lekua euskararen garapen positiborako egokia al den aztertu nahi da alderdi honetan.
   - Proiektua/plana garatzeko ezarritako hizkuntza-irizpideei lotutakoak: proiektuan/jardueran mota desberdinetako (ahozkoak, idatzizkoak, kontrataziotarako...) hizkuntza irizpideak ezarri al diren jaso nahi da.
   - Proiektuaren/planaren kaltea konpentsatzeko proiektu/jarduera osagarriak (neurri aringarriak): garatuko den proiektuaz gain, horrek sortuko duen kaltea murrizteko bere baitan bestelako plan edo proiektu osagarriak aurreikusi al diren aztertu nahi da.

   Izaera(*), dimentsioa(**) eta lekukotzeari(***) lotutako alderdiak bost jarduera nagusitan daude banatuta:

   1. Etxebizitza
   2. Jarduera ekonomikoa
   3. Ekipamenduak
   4. Espazio libreak
   5. Jarduera soziokulturala

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

3. Hizkuntza nerriak ezartzea

Hizkuntza neurriak ezarri, hala badagokio.

4. HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN XEDEA

HAPOaren xedea da udal-mugartea oso-osorik antolatzea, bai haren hiri-habitata eta bai landa-habitata, eta lurralde horretan guztian lurzoruaren erabilerak arautzea, dagokion hirigintzak udal-proiektua zehaztuz.

Beraz, HAPOaren xedea Errenteriako udalerria da; udalerriak 32 km² inguruko azalera du eta bertan 39.604 biztanle bizi dira, 2019ko abenduaren 31ko biztanleen erroldaren arabera).

2021eko maiatzean egindako aurrerakin-dokumentuan jasotakoaren arabera, plangintza aurrerakinak Plan Orokor berriak jaso beharko dituen arazo eta konponbide posibleetarako lehen hurbilketa egin du, herritarren beharrei erantzuteko eta Errenteriak jasangarritasunari dagokionez izan behar duen bilakaera lortzeko eta, hala hiriaren eraldaketa- eta birkualifikazio-prozesuari jarraipena emateko.

Egindako diagnostikoari erreparatuz, hauek dira, beste batzuen artean, proiektua egiteko orduan kontuan hartu beharreko helburu nagusiak:

- Garapen jasangarriagoari eta osasungarriagoari bide emango dion lurralde-eredua ahalbidetzea, hirigunearen erabileraren optimizazioan oinarrituta, egokia den tokietan erabilera-intentsitate handiak eta, aldi berean, zentzuzkoak aurreikusiz, ekonomia-jarduerak dibertsifikatuz eta horiek, ahal izanez gero, bizitegi-erabilerekin modu bateragarrian txertatuz. Horretarako, gainera, mugimendu ez-motordunak eta garraio kolektiboa bultzatuko dira eta espazio publikoa berrurbanizatuko da, eta hortik sinergia ugari sortuko dira airearen eta zarataren kutsadura murrizteari dagokionez, bai eta biztanleriaren osasuna hobetzeari dagokionez ere.
- Testuinguru horretan biodibertsitatea finkatzen eta lehengoratzen ere ahalegintzea, edozein kasutan, udalerriko biztanle eta ondorengo belaunaldietan arreta berezia jarriz.
- Udalerriko bizi-kalitateari eustea eta hura hobetzea, hirigunearen erabilera optimizatuz eta dibertsifikatuz, ondare eraikia eta urbanizatua berrituz eta balioztatuz, ekipamendu-zuzkidura finkatuz, abian jarriz eta handituz, landa-eremuaren erabilera-baldintzen erregulazioarekin inguruneari balioa emanez eta hirigunea Oiartzun ibaira eta Pasaiako badiara irekiz.
- Biztanle egoiliar gazteak finkatzea eta biztanle gehiago erakartzea. Horretarako, behar adinako lurzoru-eskaintza egingo da kokapen-, prezio- eta tipologia-baldintza egokietan, lehendik dagoenarekiko eta lurraldearen gaitasunarekiko erlazio egokian eta populazio kohorte desberdinen premiekin bat etorriz, gazteenak eta zaharrenak kontuan hartuta.
- Errenta-mailei eustea eta horiek handitzea, lehendik dauden ekonomia-jardueren premiak eta beste ekimen batzuk hartzeko ahalmena duen lurzorua prestatuz, industria-jardueren ezarpena eta hirugarren sektorearen garapena ahalbidetuz, batez ere enpresentzako zerbitzuekin, ikerketarekin, garapenarekin eta berrikuntzarekin, turismoarekin, aisiarekin eta ostalaritzarekin zerikusia duenarena, eta baita hurbiltasuneko tokiko merkataritza ere hirigunearen dinamizatzaile gisa, eta lehen sektorearen eta lehen sektore horretatik zuzenean eratorritako jardueren hobekuntza aintzat hartuz.
- Udalerriaren ongizate soziala hobetzea, biztanleen integrazioa, konfiantza eta segurtasuna, kultura eta hezkuntzarako sarbidea, sormena, behar diren zaintzak, zuzkidurak, ekipamenduak, etxebizitza eta herritarren oinarrizko gainerako eskakizunak bermatuz eta, aldi berean, kontsumoa kontrolatuz eta ongizate soziala "murriztea" eragingo ez duen oreka bilatuz.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

- Berdintasuna eta, bereziki, genero-berdintasuna bermatzen duten neurriak hartzea, “puntu beltzak” ekidinez eta behar diren irisgarritasun unibertsalerako baldintzak ahalbidetzen dituzten neurriak aurreikusiz.
- Hizkuntza-arloan eraginik ez izateko behar diren neurriak hartzea.
- Auzo jakin batzuk Eremu Degradatu gisa kalifikatzea aurreikustea, auzoen hiri-berroneratzeko baldintzak errazteko xedeetarako, eta beste hainbat eremuren hiri eraldaketari ekitea.
- Lehendik zeuden industria-garapen gehienak finkatzea, zaharkituta daudenak edo behar bezala urbanizatuta ez daudenak izan ezik, eta ekimen horiek beste jarduera ekonomiko mota batzuetarako lurzorua prestatzearekin osatzea, nagusiki bizitegitarakoak diren eta haietan kokatuta dauden garapenekin bateragarriak direnak, nahastura, aniztasun eta konplexutasun handiagoko hiri-eremu bat lortzeko, independenteak direnak baina hiri-bilbeari jarraipena emanaz.
- Espazio libreen sistema birdefinitzea.
- Ekipamendu-zuzkidura hobetzea, lehendik dauden zuzkidurak osatzea eta horien eraginkortasun handiagoa errazten duten partzela berriak aurreikusiz.
- Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduko baldintzak arautzea, landa-sektorea hobetzea eragingo duten ekarpenak egiteko gai diren ekimen berriak txertatzeko.
- Udal-lurraldera iristeko baldintzak hobetzea, motordunentzat nahiz ez-motordunentzat. Baita hiriko mugikortasuna, irisgarritasun unibertsala, aparkalekua eta garraio publikoa hobetzea eta bizikleta-sarea osatzea ere.
- Aipatutako helburuei erantzuna ematea ingurumen-ikuspegitik iraunkorrak diren soluzioen bitartez eta, horrela, ondorengo belaunaldien etorkizuna bermatzea. Hemen txertatuko dira baita energia aurrezteko proposamenak ere, zerbitzu-azpiegituren eraginkortasun ahalik eta handiena lortzera bideratutakoak (argiteria publikoa, etab.) nahiz teknologia berriak herritar guztien zerbitzura jartzekoak.
- Proposatu beharreko soluzioak udalaz gaindiko ikuspegitik sustatzen direnekin txertatzea eta koordinatzea.
- Klima-aldaketaren problematikari aurre egiteko behar diren neurriak sartzea.

Funtsezko oinarri horien gainean, Aurrerakin dokumentuan irizpide hauek planteatzen dira udal-lurraldearen gaineko esku-hartzeari dagokionez:

- Hiri-izaerako erabileretarako lurzoruaren kontsumoa minimizatzea, hautemandako premietarako erantzun zehatzera mugatuz eta aurretik dagoen hiriguneak eskain ditzakeen baliabideen erabilera optimizatuz.
- Landa-izaerako lurzoruko esku-hartze, erabilera- eta eraikuntza-erregimena arautzea, aipaturiko inguruneak berezkoak dituen balioak babestuz, biodibertsitateari lagunduz, lehen sektorearen garapenarekin, kalitate bereziko lurralde baten gozamenarekin eta paisaiaren antolamenduarekin lotutako produktibitatea bultzatuz eta landa-sektorearen balizko birmoldaketa eragingo duten ekarpenak egiteko gai diren ekimenak txertatuz (balio hidriko eta geologikoak balioetsi, lurzoru artifizializatuak lehengoratu, etab.).
- Hiriguneko lurzoruaren erabilerak arautzea, dibertsitatea eta nahasketa bultzatuz, baldin eta bateragarriak badira; eta euren kokapen orekatua sustatzea.
- Udalerriaren irisgarritasuna eta udalerria bere lurralde-testuinguruan txertatzea bermatuko dituzten bide-azpiegiturak eta zerbitzu-azpiegiturak (telekomunikazioak, gasa, ur-hornidura, energia elektrikoa, argiteria publikoa, saneamendua, etab.) ezartzea, garraio kolektiboan arreta berezia jarriz.
- Toki-izaerako espazio libreak eta beharrezko ekipamenduak garatzea.
- Horretarako guztirako, eraikitako eta urbanizatutako ondarea birgaitzea, beharrezkoak diren hiri-eraldaketa eta -berroneratzeko esku-hartzeak ahalbidetuz.
- Industriako edo hirugarren sektoreko ekonomia-jarduerak finkatzeko lurrak zehaztea.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

- Errenteriako plangintza Lurralde Antolamenduko tresnekin (LAG, LPP, LAP, etab.) eta udalerri mugakideetako plangintzekin koordinatzea.

Aurrerapena, herritarren partaidetzaren fasea eta hainbat txosten sektorial azaldu ondoren, Plan Orokorra idatzi zuenaren txostena egin zen aurrerapenaren jendaurreko azalpenari buruz, eta, ondoren, 2022ko apirilaren 12ko ebazpenaren bidez, Aurrerapenaren irizpideak, helburuak eta irtenbide orokorrak berrestea erabaki zen, eta, horretarako, berriz doitu eta/edo osatu egin ziren, laburpen honen arabera:
- Errenteriak Oarsoaldeko (Pasaiako badia) Hiri eta Hiri-periferiako Multzoaren buru gisa duen zeregina indartzea.
- Espazio publikoa birkalifikatzea eta, bereziki, mugikortasun ez-motorduna bideratzea eta irisgarritasun unibertsala ahalbidetzea. Hori guztia Aurrerapeneko auzo-bihotzak identifikatzeko proposamenak kontuan hartuta, baita auzo jakin batzuetarako jasotako ekarpenak eta oinezkoentzako ardatzen antolamendua ere, aurreko horiek konektatuz.
- Euskotrenen trazadura Galtzarborda eta Gaztelutxoko biribilgunearen artean lurperatzearen alde egitea, edo beste edozein konponbideren alde egitea, Zentroko geltokiaren trenbide-pasaguneari erantzuteko eta Euskotrenen trazadurak eremu horretan gaur egun duen eragina arintzeko, eta, ahal dela, askatutako espazio hori herritarren erabilerarako berreskura dadin.
- Udalerrian enplegua sortzen laguntzea, landa ingurunean lehen sektorea antolatzeko baldintzak erregulatuz eta ekipamenduak ezartzeko eta jarduera ekonomiko industrialak eta hirugarren sektorekoak hartzeko lurzorua aurreikusiz, baita enpresa-parkera bideratzeko ere. Horrez gain, tokiko merkataritza bultzatzeko neurriak bultzatzea, espazio publikoaren antolamenduaren arloan planteatzen diren soluzioekin koordinatuta.
- Etxebizitza-parkea birgaitzeko erraztasunak ematea eta 1.200 etxebizitza inguruko bizitegi-eskaintza berria proposatzea. Etxebizitza horiek, neurri handi batean, babes publikoko etxebizitzetara bideratu beharko dira, hainbat edukitza-erregimenetan, beste bizitoki-mota batzuen antolamendu gehigarriaren kalterik gabe. Horretarako, hirigune historikoari balioa ematea proposatzen da, hura suspertzen saiatuz, eta hiria berroneratzeko eremuak mugatzea.
- Lurzoru urbanizaezinean babes bereziko eta erabilerak ezartzeko baldintzak arautzea (nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jarduerak, energia berriztagarriak edo zerbitzu-azpiegituren bestelako erabilerak), eta lurzoru berrien artifizializazioa ekimen egokietara mugatzea.
- Klima-aldaketaren erronkari erantzuteko behar diren neurriak txertatzea.

5. TESTUINGURUA: DATU OROKORRAK

Txosten honetan jasotako datuak EUSTAT, Errenteriako Udala eta Soziolinguistika Klusterraren iturrietatik eskuratu ditugu. Datu batzuek hizkuntza arloko ebaluazioarekin zerikusia duten gaietan eragiten dute eta beste batzuek, berriz, HAPO proiektuak planteatzen dituen hirigintza proposamenekin.
Aztertutako aldiari dagokionez, datu gehienak 2011-2016 aldiaren barrukoak dira, hain zuzen ere Errenteriako kaleetan euskararen erabileraren neurketak egin diren datak.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

5.1. LURRALDE EREMUA ETA KOKAPENA

Errenteriako udal-mugartea Oiartzun ibaiaren haranean dago, Pasaiako badiaren bokalean, eta hegoalderantz hedatzen da Añarbeko Urtegiraino. Oarsoaldeako herria da eta muga egiten du Oiartzun, Lezo, Pasaia, Donostia, Astigarraga, Hernani, Arano eta Goizuetarekin.

Kontuan hartu beharreko zenbait alderdi ere badaude: portua izatea itsas fatxadan, komunikazio-egituren garrantzia (Donostiako bigarren ingurabidea, Donostiako saihesbidea, lehendik zeuden trenbide-sareak eta abar), eta Donostia, Pasaia, Lezo eta Oiartzungo hiriguneekiko jarraitutasuna.

Joan den mendean industria ugari kokatu ziren udalerrian, hiribilduaren fundazio-gunetik hurbil, eta hiria Oiartzun ibaiaren bi aldeetan zabaldu zen, biztanleria nabarmen haziz.

Azken urteotan, hiri-kokagunea zabaldu egin da, 1991eko Arau Subsidiarioak eta 2004ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra garatzean. Industria-kokaguneak hegoalderantz eraman dira eta, alde berean, hiria hedatzeko lekua utzi dute, bizitegi-erabilerak, hirugarren sektoreko erabilerak eta ekipamenduak eta espazio libreak hartuz. Gaur egun, hirigunean, Papresa enpresa besterik ez da geratzen.

Era berean, komunikazio-bideen trazaduran funtsezko aldaketa bat gertatu da, eta horrek lurraldearen irudia aldatzen lagundu du.

5.2 BIZTANLERIA

ERRENTERIAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA, 1960-2016										
	1960	1970	1975	1990	1995	2000	2005	2010	2011	2016
Biztanle kopurua	18.642	34.610	46.360	42.441	41.033	39.200	37.884	39.315	39.583	39.910



ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

Aipatu beharrekoa da Errenteriak 1960-1975 urte tartean izandako hazkunde demografiko nabarmena, hiri adeitsu eta inklusiboa izateak eragindakoa. 1975ean biztanle kopuruak beheranzko joera hartu zuen 2005. urtera arte, urte horretan puntu baxuenera iritsita. 2005ean goranzko joera hartu du, txikia bada ere. Egoeraren azterketak, bestalde, biztanleriaren aniztasuna erakusten du. Hala, jaiotza-tasak jaitsi eta heriotza-tasak igo direla egiaztatu den arren, kanpoko migrazio-saldoa (EAEtik kanpokoa) da azken aldian izandako hazkundearen arrazoia, estatutik zein atzerriko herrialdeetatik datozen biztanle berriei esker. Egun munduko herrialde askotan jaiotako pertsonak bizi dira herrian.2021eko azaroaren 29an Soziolinguistika Klusterrak herriko hizkuntzen maparen aurkezpena egin du eta biztanleriaren gaineko datu orokorrak jaso ditugu. Datu zehatzagoak izan bitarte, aurreratu dezakegu egun Errenterian 70 hizkuntza inguru hitz egiten direla. Horrek berekin dakar hizkuntza aniztasun handia izatea, hizkuntz komunitate ezberdinetako pertsonak bizi direlako Errenterian, eta aniztasun hori kudeatzeko neurriak hartzea.
Azterketa egiteko garaian 2011 eta 2016ko datuak erabili ditugu, bi urte horietako ahalik eta argazki osatuena egiteko asmoz. Kaleko erabilerari dagokionez, aurrerago esango dugun bezala, laster erabilgarri izango ditugu 2021ean egindako kale erabileraren neurketako datuak.
Horiek horrela, azterketa egiteko aplikatiboak, datu hauek ematen ditu biztanleriaren osaerari dagokionez. Aplikazioak, 2016ko datuak eta orain arteko migrazio joerak kontuan hartuta, prospekzioa egiten du eta, horren arabera, honela osatuko litzateke Errenteriako biztanleria:

ERRENTERIAKO BIZTANLEAK	
Biztanleen kopurua gaur egun	39.910
Euskaldunak gaur egun kopurutan	17.125
Euskaldunak gaur egun %	% 42,91
Biztanle/bisitari berrien kopurua	5.100

BIZTANLE/BISITARI BERRIEN JATORRIA PORTZENTAJETAN		KOPURUTAN
Araba	% 0,29	15
Bizkaia	% 0,78	40
Gipuzkoa	% 67,91	3.463
Estatuko gainontzeko lurraldeak	% 22,21	1.133
Atzerrikoak	% 8,82	450
DENETARA	% 100	

5.3 MIGRAZIO MUGIMENDUAK

EAEko biztanleria, lurralde-eremuen, migrazioarekiko erlazioaren eta sexuaren arabera. 2011 eta 2016.

2011			
	Guztira	**Gizonezkoak**	**Emakumezkoak**
Sedentarioak %42	16.609	8.599	8.010
Barne-migratzaileak %35	13.738	6.563	7.175
Etorkinak %23	9.236	4.239	4.997

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

Guztira	39.583	19.401	20.182
2016			
	Guztira	**Gizonezkoak**	**Emakumezkoak**
Sedentarioak % 42	16.697	8.597	8.100
Barne-migratzaileak % 36	14.324	6.847	7.477
Etorkinak % 22	8.889	4.039	4.850
Guztira	39.910	19.483	20.427

5.4 DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

HIZKUNTZA GAITASUNAREN BILAKAERA ERRENTERIAN, 1986-2016							
	1986	**1991**	**1996**	**2001**	**2006**	**2011**	**2016**
Euskaldunak	10.066	10.070	11.379	12.096	13.337	14.479	16.714
Ia euskaldunak	6.404	9.804	8.635	7.701	7.853	10.709	7.749
Erdaldunak	62.401	21.222	19.986	17.464	15.469	13.182	14.496
Guztira	42.871	41.096	39.000	37.261	36.659	38.370	38.959
	(%)	**(%)**	**(%)**	**(%)**	**(%)**	**(%)**	**(%)**
Euskaldunak	23,5	24,5	29,2	32,5	36,4	37,7	42,9
Ia euskaldunak	14,9	23,9	22,1	20,7	21,4	27,9	19,8
Erdaldunak	61,6	51,6	48,7	46,8	42,2	34,4	37,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Hauek dira 2011-2016 tartean izandako aldaketak:

- euskaldunen kopuruak gora egin du: 2011n % 37,70 eta 2016an % 42,90.
- ia euskaldunen kopuruak behera egin du: 2011ko % 27,80 eta 2016an % 19,80.
- erdaldunen kopuruak, berriz, gora egin du: 2011n % 34,30 eta 2016an % 37,20.

EZAGUTZA		
EAEKO 2 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA, EUSKARA MAILA GLOBALAREN ARABERA		
Ama-hizkuntza	2011	2016
Ama-hizkuntza euskara	7.060	7.020
Ama-hizkuntza gaztelania	28.814	28.347
Ama-hizkuntza biak	2410	2.890
Ama-hizkuntza beste bat	1299	1.653

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

ERABILERA		
EAEKO 2 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA, EUSKARA MAILA GLOBALAREN ARABERA		
Etxean erabiltzen den hizkuntza	2011	2016
Etxean erabiltzen den hizkuntza. Euskara	4.384	4.960
Etxean erabiltzen den hizkuntza. Gaztelania	30.963	28.864
Etxean erabiltzen den hizkuntza. Biak	3.549	5.004
Etxean erabiltzen den hizkuntza. Besteren bat	687	1.082

Balorazio orokor gisa esan daiteke euskara gutxiago erabiltzen dela etxean gaztelania baino, biak erabiltzen dituztenen kopurua batuta ere.

KALE ERABILERAREN NEURKETA		
	2011 (%)	2016 (%)
Euskaraz	12	14,7
Gaztelaniaz	86,2	82,3
Beste hizkuntzetan	1,8	3

KALE ERABILERAREN NEURKETA, SEXUAREN ARABERA, (%) 2011 ETA 2016			
	GUZTIAK	**EMAKUMEZKOAK**	**GIZONEZKOAK**
		2011	
Euskaraz	12,0	12,5	11,5
Gaztelaniaz	86,2	86,5	85,8
Beste hizkuntzetan	1,8	1,0	2,7
		2016	
Euskaraz	14,7	15,9	13,2
Gaztelaniaz	82,3	82,1	82,5
Beste hizkuntzetan	3,0	2,0	4,3

Gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza portaeraren artean alde handirik ez badago ere, emakumezkoen erabilera (% 12,5 eta % 15,9, 2011n eta 2016n, hurrenez hurren) gizonezkoena baino handiagoa da (% 11,5 eta % 13,2, 2011n eta 2016an hurrenez hurren). Bost urteko tartean emakumezkoen erabilerak 3 puntu egin du gora eta gizonezkoenak, berriz, 2 puntu.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

KALE ERABILERAREN NEURKETA ADINAREN ARABERA (%), 2011 ETA 2016				
	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ADINEKOAK
2011				
Euskaraz	19,7	15,2	11,4	5,1
Gaztelaniaz	78,2	74,7	85,8	94,8
Beste hizkuntzetan	2,1	1,5	2,7	0,1
2016				
Euskaraz	26,3	13,8	13,0	7,2
Gaztelaniaz	71,1	84,2	82,3	92,6
Beste hizkuntzetan	2,6	2,0	4,7	0,2

Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaeran adinaren arabera aztertuz gero. Herri askotan haurrak (2-14 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak eta Errenterian ere hala gertatu da: haurren erabilera da altuena udalerrian; 2016an adibidez, % 26,3tan darabilte euskara haurrek. Ondoren, baina nabarmentzeko tartearekin gazteen (% 13,8) eta helduen (% 13,0) erabilerak ikus daitezke. Azkenik, euskararik gutxiena erabiltzen duten hiritarrak adineko pertsonak dira: % 7,2 elkarrizketa izan dira euskaraz adin horietako lagunen artean. Beraz, esan daiteke, Errenterian, zenbat eta gazteagoa orduan eta euskararen erabilera handiagoa entzun ohi dela kaleetan.
Era berean, nabarmentzekoa da hizkuntza-portaerak aldatu egiten direla solas-taldearen osaeraren arabera. Zehazki, haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean, erabilera % 17,1ekoa da euskaraz; nagusiek, euren artean (haurrik gabe) ari direnean, dezente gutxiago erabiltzen dute euskara (% 8,3). Aldiz, haurrez eta helduez osatutako taldeetan % 26,8tan euskaraz izan dira elkarrizketak.
Laburtuz, esan daiteke adin-tarteak nahasten direnean euskararen erabilerak gora egiten duela eta kasu horietan haurra hitz egiten ari bada, are nabarmenagoa dela euskararen erabilera.

Txosten hau emateko garaian euskararen erabileraren kale neurketa egiten ari da Soziolinguistika Klusterra, eta 2021eko datuak 2022ko martxoa/apirilean izango ditugu erabilgarri.

5.5 EUSKARAREN INGURUKO EGITURAKETA

Errenteriako Udalak Euskara Sustatzeko Plana du (ESEP). Orain 2022-2027 eperako ESEP berria lantzen ari da, elkarteek eta herritarrek parte hartzen duten prozesu baten bidez, datozen urteotarako udaleko hizkuntza-politika definitzeko, 4 helburu estrategikotan oinarrituta:
4 helburu estrategiko oinarri hartuta:

1. hizkuntza aniztasuna kudeatu, Errenteriak duen hizkuntza eta kultura aniztasuna kontuan hartuta eta euskara erdigunean jarrita
2. lan-mundua eta merkataritza
3. gizarteratze ez-formala: aisaldia, kultura, kirola
4. eremu formalak: administrazioa, irakaskuntza eta euskalduntzea-alfabetatzea.

2021eko azaroan Udal Hizkuntza Politikarako Kontseilu berria eratzeko erregelamendu onartu zen eta Kontseiluak 2022ko otsailean egin zuen lehenengo bilkura.
Lau Haizetara euskaldunon elkartea dago herrian.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

5.6 HEZKUNTZA

Herriko ikastetxeetan D eredua da nagusi.

5.7 DATU SOZIOEKONOMIKOAK

DATU SOZIOEKONOMIKOAK (2016)	
Biztanleko BPGa: euroak	18.614,9 €
Jarduera ekonomikoa. Industria: BEGaren %	% 23,9
Jarduera ekonomikoa. Zerbitzuak: BEGaren %	% 69,4
Jarduera ekonomikoa. Lehen sektorea: BEGaren %	% 0,1
Enplegua establezimenduetan	8.566
Biztanleria aktiboa guztira	19.271
Langabeak guztira	2.689 (% 14)
Aktiboak, gizonezkoak	10.095
Langabeak, gizonezkoak	1.288 (% 12,8)
Aktiboak, emakumezkoak	9.176
Langabeak, emakumezkoak	1.401 (% 15.3)

5.8 EKIPAMENDUAK ETA AZPIEGITURAK

- Udaletxea
- Kiroldegia
- Igerilekuak
- Ludoteka
- Gaztelekua
- Ikastetxeak
- Haurreskola
- 2 euskaltegi: Udal Euskaltegia eta AEK
- Hedabideak
- Liburutegia
- Osasun etxeak
- Turismo bulegoa
- Parkeak, bidegorriak, aisialdirako guneak

6. HIRIGINTZA PROIEKTUEN PROPOSAMENEK IZANGO DUTEN HIZKUNTZA INPAKTUAREN EBALUAZIOA

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

6.1 GALDETEGI LABURRA (IRISMEN TXOSTENA)

Irismen dokumentuak esaten digu zenbaterainoko eragin soziolinguistikoa izan dezakeen eremu jakin batean abian jarri nahi den plan edo proiektuak.
HAPOan jasota dauden esku-hartzeen artean 1200 etxebizitza eraikitzea dago. Horietatik 597 Gamongoan daude eta 189 Altzaten, dagoeneko exekuzio fasean, eta horrek biztanle kopurua handitzea ekarriko duenez, gerta liteke egoera soziolinguistikoan eragina izatea eta, hortaz, arrazoizkoa da prebentzio ikuspegitik eraginik izan dezakeen aztertzea.

GALDERA	BAI/EZ	AZALPENA
Planak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanleria kopuruan? (etxebizitzak eraikiko direlako, lanpostuak sortuko direlako,...)	**BAI**	1200 etxebizitza eraikiko dira eta igoera nabarmena izango ez bada ere, biztanle kopurua handitu egingo da
Planak/egitasmoak izango al du eragin nabarmenik tokiko bisitari kopuruan? (aisialdiguneak eraikiko direlako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak ugarituko direlako,...)	**EZ**	Proiektuan ez da aurreikusten bisitari kopuruan eragina izan dezakeen esku-hartzerik
Planak/egitasmoak egoera soziolinguistikoan beste era batera eragin nabarmenik izango du?	BAI	Harreman sare izan daitezkeen guneak sortuko dira eta datu soziolinguistikoei buruzko atalean esandakoa aintzat hartuta, horietan sortzen diren harremanek eragin dezakete euskararen erabilerak gora egin dezan

6.2. INDIZEAK: *HAUSKORTASUN INDIZEA, EUSKARAREN PROIEKZIO INDIZEA, BILAKAERA INDIZEA*

Lehenengo eta behin *HAUSKORTASUN INDIZEA*[1] (HI) kalkulatu behar da. Horretarako 2016ko datuak izan ditugu kontuan:

ERRENTERIAKO *HAUSKORTASUN INDIZEA* (HI)	
Biztanle kopurua	39.910
Euskaldunak gaur egun	% 42,91
Lehen hizkuntza euskara	% 17,59
Etxeko hizkuntza	% 12,73
Euskararen babesa	Udal Hizkuntza Politika saila + ESEP
HAUSKORTASUN INDIZEA	0,33

Datu horien arabera, Errenteriak *hauskortasun* txikia du, **0,33ko** emaitza ateratzen baita ELE aplikazioan.
Behin proiektuak udalerriko egoera soziolinguistikoa zer-nolako neurrian hauts dezakeen ikusirik, hurrengo indizea kalkulatu dugu, *EUSKARAREN PROIEKZIO INDIZEA*[2] (EPI) hain zuzen ere.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

1 *HAUSKORTASUN INDIZEA*: Eremu batek egoera soziolinguistikoaren aldaketa bati aurre egiteko duen gaitasuna.
2 EUSKARAREN PROIEKZIO INDIZEA: Plan/proiektu bat egin ondoren, euskararen ezagutzak izan dezakeen aldaketa, positiboa edo negatiboa

Euskararen ezagutzak biztanle berriak etortzearekin izango lukeen proiekzioa egiteko 2016. urteko erroldaren datuak hartu behar dira kontuan, eta horri gehitu etxebizitza berriak eginez gero etorriko diren biztanle berriak. Horiek horrela,

- Etxebizitza: 1.200 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da.
- Biztanleak: Beste daturik izan ezean, era orokor batean 3 biztanle kalkulatzen da etxebizitzako, nahiz eta HAPOren memorian jada jasota dagoen Errenterian etxebizitza bakoitzeko 2,39 kidez osatutakoa dela, batez beste .

Hartara, 1.200 etxebizitza eraikiz gero, 3.600 biztanle kalkulatu behar ditugu.

EUSKARAREN PROIEKZIO INDIZEA (EPI)	
Biztanleak gaur egun	39,910
Euskaldunak gaur egun %	% 42.91
Etxe berriak	1.200
Biztanle berriak	3.600
EPI	-0,20

Ondorengo urratsa migrazio joerak aztertzea izan da. ELE aplikazioak datu hauek ematen dizkigu:

BIZTANLE/BISITARI BERRIEN JATORRIA	%	KOPURUTAN
Araba	0,29	10
Bizkaia	0,78	28
Gipuzkoa	67,91	2.445
Estatuko gainontzeko lurraldeak	22,21	800
Atzerrikoak	8,82	318

Datu horien arabera, Errenteriara etorritako gehienek EAEn dute jatorria.

Azkenik *BILAKAERA INDIZEA*[3] kalkulatu behar da, *hauskortasun indizea* (0,33) eta euskararen *proiekzio indizea* (-0,20) kontuan izanik:

BILAKAERA INDIZEA	1,80

Berez, ELE metodologiaren arabera, *bilakaera indizea* 0 edo positiboa bada ez da azterlana egin behar. Nolanahi ere, gure kasuan emaitza positiboa izanda ere, HAPOak eragin kaltegarririk sortzea ekiditeko eta prebentzio neurriak ezarri ahal izateko, Eragin Linguistikoaren Galdetegia bete eta azterketa egin dugu.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

3 BILAKAERA INDIZEA. euskararen proiekzio indizearen eta *hauskortasun indizea*ren arteko uztarketa

7. ERAGIN LINGUISTIKOAREN GALDETEGIA (AZTERLANA)

Galdetegi honen helburua da hizkuntza ikuspegitik proiektuak izan ditzakeen gabeziez ohartaraztea. Azterketa jarraian aipatuko diren premisetan oinarritu da:
- Errenteriako euskararen indizea egun % 52,8 da
- Populazioak gora egin du, proportzio txikian bada ere
- Euskaldunen kopurua handitu egin da
- Kalean gero eta gehiago erabiltzen da euskara
- Etxean euskara oro har gutxiago erabiltzen da gaztelania baino, biak erabiltzen dituztenen kopurua batuta ere.

Ebaluazioa 4. puntuan aurreikusitako helburuen gainean egin da (HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN XEDEA), alor hauetan izan dezakeen eragina oinarri hartuta:

7.1 ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOAREN GAINEKO GALDETEGIA (ELE GALDETEGIA)

Galdetegiaren helburua da proiektuak hizkuntza ikuspegitik izan ditzakeen gabeziak aztertzea. Atal hauetan izan dezakeen eragina aztertu dugu:

1.- Komunitatean eta kultur eta gizarte bizitzan (harreman sareak aldatzea, harreman ohiturak aldatzea, kultur espazioak aldatzea, elkargune berriak sortzea, kultur agenda aldatzea).

- Proiektua egiten den bitartean eragina mugatua izatea espero da, hau da, proiektua garatuko den lekuan soilik nabaritzea. Gehienez ere bertan lanean arituko diren langileek erabiliko dituzten zerbitzuetan (tabernak, jatetxeak,...) aurreikusi daiteke eragina izatea.
- Proiektua egin eta gero: eragina hedatua izatea espero da. Eraikiko den etxebizitza kopurua ez da nabarmen handia eta ez du biztanleriaren hazkunde handia ekarriko, baina egiten diren etxebizitza tipologiaren arabera (jabetzan, alokairuan, babes ofizialekoak, promozio pribatuak,...) etxebizitzetan sartuko diren biztanle berriak errenteriarrak edo Errenteriatik kanpo etorritakoak izango dira eta horrek egoera soziolinguistikoan aldaketak ekar ditzake. Etxebizitza berrietan familiak, haur gazteekin, etortzen badira bizitasuna emango diote herriari eta harreman sare berriak sortuko dira.

  Ekipamenduak egin eta espazio publikoak antolatzea aurreikusten denez, litekeena da errenteriar guztiek izatea horiek erabiltzeko aukera eta horrek ere harreman sare berriak sortuko ditu.
- Proiektuaren eragina etengabea izatea espero da, etorri berriak bertan bizitzen jarriko direlako: familiak etortzen badira haurrak eskolan integratu eta euskaldunduko dira.

2.- Tokiko euskararen ezagutzan

- Proiektua egiten den bitartean: ez dago aurreikusterik etorriko diren langileen euskararen ezagutza maila zein izango den. Bai aurreikusi daiteke inguruko merkataritza eremuko establezimenduekin harremanetan jartzea (jatetxe, taberna, denda,...). Eragina, izatekotan, baxua izatea espero da, baina kontuan hartu beharrekoa hizkuntza neurriak jartzeari begira.
- Proiektua egin ondoren: bilakaera indizea 1,80 izanik, ez du ematen eragin handirik izango duenik. Nolanahi ere, eragina etengabekoa izango da eta kontuan hartu behar da izan litezkeen biztanle berrien ezaugarriek, horien ezagutzak, modu batean edo bestean eragingo duelako: EAEtik kanpoko jendea izan daiteke, euskararen ezagutzarik gabea, eta EAE barrukoa izanda ere euskara gaitasunik gabea izatea.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

- Eragina etengabea izango da, herri osoan, eta sortzen diren harreman sareen arabera, positiboa edo negatiboa. Familiak etorriz gero, gerta liteke haurrak D ereduan eskolatzearen ondorioz integrazioaren eragina positiboa izatea.

3.- Tokiko euskararen erabileran

Ezagutzan esanda bezala, kontuan hartu beharko da lanean arituko diren langileen zein bertara bizitzera etorriko diren herritarren hizkuntza ezagutza, hizkuntza neurriak jartzeari begira.

Euskararen erabileraren neurketa egin berria dugun arren, oraindik ez ditugu emaitzak eskuratu. Bai esan dezakegu 2011n % 13 zela eta 2016an, berriz, % 14,7 izan zela. Hortaz, 5 urteko epean % 1,7 handitu zen erabilera.

2021eko datuak eskuratzean jakingo dugu, emaitzen arabera, gorunzko joerak jarraitzen duen eta hori indartzeko neurriak hartzea baloratu behar den.

Errenteriako indize soziolinguistikoa % 52,8 da. Ezagutza handia da eta hori baliatu behar da euskaraz ez dakiten etorri berriak euskaldundu daitezen neurriak hartzeko.

Eragina etengabea izango da, herri osoan, eta sortzen diren harreman sareen arabera, positiboa edo negatiboa.

4.- Hizkuntza paisaian

- Proiektua egiten den bitartean: eragina izango du, obrak egiten diren bitartean informaziorako kartelak jartzen direlako, oharrekin. Udaletik zaindu beharko da promozioak egiten dituzten etxegileek obretako kartelak zein etxebizitzen sustapena ele bitan egitea.
- Proiektua egin ondoren: obrak amaitu ondoren 3. sektoreko establezimenduak irekitzea espero da. Horietan hizkuntza paisaia gaztelania hutsez izatea ekidin behar da.
- Eragina etengabea izango denez, paisaia zaintzeko neurriak hartu beharko dira, paisaia gutxienez bi hizkuntzatan egon dadin.

5.- Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioetan

- Proiektua egiten ari den bitartean: eremuan obrak egiten ari diren bitartean promozioen komunikazioa gaztelania hutsez izatea saihestu behar da. Etxebizitzen kasuan, esaterako, promozio pribatukoak baldin badira, baldintza hori betetzea bermatu beharko da.
- Proiektua egin ondoren: zerbitzuak (lokal komertzialak, aisialdirako ekipamenduak,...) sortuko dira. Horietan euskararen erabilera bermatu behar da, zerbitzuen komunikazioa etengabea izango baita.

6.- Euskarazko zerbitzuen eskaintzan

- Proiektua egiten den bitartean: proiektua amaitu arte ez da espero eraginik izatea. Eragina egingo diren ekipamendu eta zerbitzuen eskaintzaren araberakoa izango da.
- Proiektua egin ondoren: zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen araberako eskaintza eginez gero, gerta liteke etorritako hiztun erdaldunek zerbitzuak gaztelania hutsez eskatzea. Udaletik zaindu beharko da zerbitzuak euskaraz ere eskaintzea.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

7.2 FUNTSEZKO ALDERDIEN GALDETEGIA

Funtsezkoa da plana garatzeko orduan hizkuntzaren alderdia ere aintzat hartzea. Hizkuntzan eragina izango duten alderdi bakoitzeko, hirigintza garapenari zein hizkuntzari estuki lotutako funtsezko alderdiei buruzko azterketa egin behar da. Helburua da plana garatzean funtsezko alderdi horiek zein diren jabetzea eta plangintzak barne biltzen dituen baloratzea. Funtsezko alderdi batzuek ez dute zuzenean euskararen ezagutza eta erabilera bermatzen, baina bai laguntzen dute komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza osasuntsuagoa izaten

Funtsezko alderdiak bost ataletan banatu dira: izaera, dimentsioa, lekukotzea, hizkuntza-irizpideak eta neurri osagarri/aringarriak.

• Izaerari lotutakoak: etxebizitzen tipologia, espazio publikoen funtzio eta erabilera mota, ekipamenduen kudeaketa-eredua eta garapen sozioekonomiko zein soziokulturalaren eredua euskararen garapen positiborako egokiak ote diren aztertu nahi du funtsezko alderdi honek.

• Dimentsioari (espazioan eta denboran) lotutakoak: proiektuak ekarriko duen hazkundea, berau garatzeko beharko den denbora eta okupatuko duen espazioa hizkuntzaren garapen positiborako egokiak ote diren jasotzen du.

• Lekukotzeari lotutakoak: proiektua edo jarduera garatuko den lekua euskararen garapen positiborako egokia al den aztertu nahi da alderdi honetan.

• Plana garatzeko ezarritako hizkuntza-irizpideei lotutakoak: proiektuari/jarduerari mota desberdinetako (ahozkoak, idatzizkoak, kontrataziotarako...) hizkuntza-irizpideak ezarri ote zaizkion jaso nahi da.

• Planaren kaltea konpentsatzeko proiektu/jarduera osagarriak (neurri aringarriak): garatuko den proiektuaz gain, horrek sortuko duen kaltea murrizteko bere baitan bestelako plan edo proiektu osagarriak aurreikusi ote diren aztertu nahi da.

Izaera, dimentsioa eta lekukotzeari lotutako alderdiak jarduera nagusi hauetan banatuta daude:

7.2.1. Etxebizitza

IZAERA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
Etxebizitzen batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoa al da? Errenterian eraikiko den eremuetan 1.200 etxebizitza berriko gehieneko eskaintza dago aurreikusita, prozesuak aurrera egin ahala sor daitezkeen beste batzuek kalterik gabe: 228 etxebizitza libre eta 282 etxebizitza publiko. 1000 biztanleko eta urteko 2,00 eta 2,85 etxebizitza inguru dira, kasu bakoitzean 15 urteko epean egiteko.	Beharrak aztertuta, familiak, gazteak herrian geratzea lortuz gero, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, herriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta ezagutza-tasa ez jaistea lor daiteke
Etxebizitzetatik oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen du? Etxebizitzak zein ekipamenduak herri gunean daude eta irisgarriak dira. Oinarrizko zerbitzuetatik gertu daude.	Elkarbizitzarako espazioak izateak komunitearen gizarte bizitza aberasten du eta, ondorioz, erabileran eragina izan dezake
Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten al dira etxebizitzetatik gertu? HAPOaren aurrerakin dokumentuak proposatzen du auzo bakoitzean batez ere oinezkoentzat izango den espazio libre bat identifikatzea,	

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

haren erreferentzia eta identitate gune eta leku gisa konfiguratuko dena, auzoaren bihotz gisa ("Auzo bihotz"), hirugarren sektoreko jarduerak, batez ere merkataritzakoak eta zuzkidurakoak kokatu ahal izateko.	
Etxebizitza-eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzea aurreikusi al da? Eraikin gehienek etxebizitza asko dituzte, eta ez da ia familia bakarreko edo biko eraikinik planteatzen.	
DIMENTSIOA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
Herriaren hazkuntza jasangarria izatea jasotzen al da helburuen artean? Helburua da herriaren hazkuntza jasangarria izatea, herri-eremuaren erabilera eta dimentsioa optimizatzeko.	Beharrak aztertuta, familiak, gazteak herrian geratzea lortuz gero, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, herriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta ezagutza-tasa ez jaistea lor daiteke
Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzen al da? Aurreikusi da, neurri txiki batean, Errenteriako herritarrei babes publikoko etxebizitza jakin batzuk eskuratzeko lehentasuna ematea.	
Etxebizitzen eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzen al dira? Aurreikusi da fase desberdinetan egitea, proiektuaren tamaina ikusita ezinbestekoa izango da. 15 urteko epean eraikiko dira.	Jende etorrera asimilatzeko aukera ematen du
LEKUKOTZEA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
Etxebizitzak herriko eremu ezberdinetan egitea aurreikusten da? Etxebizitzak Errenteriako hainbat eremutan egingo dira: Altzate, Esnabide, Gamongoa, Perutxene/Sagasti, Palaziozarra/Larretxipi, Tolare Berri, Zamalbide Berri. Etxebizitzak eremu askotan egingo direnez, eragina izanda ere errazago asimilatzeko aukera emango du.	Eraginaren intentsitatea baxuagoa izatea lortzen da

7.2.2. Espazio publiko irekiak

IZAERA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
Espazio publiko ireki erakargarriak, aise iristeko eta erabiltzeko modukoak bultzatzen al dira? Espazio publiko ireki erakargarriak, aise iristeko eta erabiltzeko modukoak bultzatzen dira. Irisgarritasun unibertsaleko baldintzak hobetzeko aukerak baloratuko dira hainbat gunetan. Irtenbide multzo bat hartu da eta aurrerantzean gehiago hartuko dira oinezkoen sarea hobetzeko: espaloiak zabaldu, oinezkoentzako eremu partzialak jartzea, igogailuak, galtzadetan pasabide goratuak egitea,…	Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du.
Oinezko sareak aurreikusi al dira? Oinezko sareak daude. HAPOaren aurrerakin dokumentuak proposatzen du *auzo bakoitzean batez ere oinezkoentzat izango den* espazio libre bat	

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

identifikatzea, haren erreferentzia eta identitate gune eta leku gisa konfiguratuko dena, auzoaren bihotz gisa (aurrerantzean, "Auzo bihotza"), hirugarren sektoreko jarduerak, batez ere merkataritzakoak eta zuzkidurakoak kokatu ahal izateko.	
<u>Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartu al da?</u> Kontuan hartu da espazio publikoen arteko harremana egotea. Udalerriko espazio libreen sistema orokorra dago eta aurreikusten den *hiri-parkearen sarearekin osatu nahi da. Eredu horrek identitate espazio bat eskaintzen du auzo bakoitzerako.* Sareak inguruko herriekin konektatuta egotea aurreikusten da. Planteatzen dira parkeetan pasealeku berriak antolatzea (Alaberga, Arramendi…), zubiak eraikitzea (Iztieta-Altzate, Pasaiako badiaren ertzeko ibilbidearen jarraitutasuna…), pasabideak egitea (Alaberga-Galtzaraborda, Jose Miguel Barandiaran-Arramendi, Arramendi-Palaziozarra…) eta goialdeko eta behealdeko auzoen arteko konektagarritasuna hobetuko duten igogailu berriak ezartzea. Alternatiba horiek guztiek ahalbidetuko dute plaza bat antolatzea Erdigunearen eta Gaztañoren artean, oinezko hiribide baten bidez jarraitutasuna izango duena mendebalderantz, Galtzarabordako geltokiraino; Gaztaño pasealekutik Agustinak eremuko biribilgunerainoko bide-jarraitutasuna antolatuko da zubibide gisa, eta Aurrerakin honetan proposatzen den hiri-eraztuna osatuko da.	
<u>Espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea aurreikusten al da?</u> Aurreikusia dago espazio ireki bakoitzari bere funtzioa ematea. "Auzo bihotzekin" eta auzo bakoitzeko aire zabaleko jolas- eta kirol-eremuekin batera, hiri lurzoruan oinezkoen mugikortasuna bultzatzea du helburu.	Ezaugarri ezberdinetako pertsonak elkarrekin egotea sustatzen du eta gizarte kohesio eta elkarbizitza hobetzen du, erabilera areagotuz
<u>Espazio publikoetan adin nahasketa ematea aurreikusten al da? Haur zein helduek erabili ahal izateko guneak egotea?</u> Oinezkoentzako proposatzen den sareak pertsona guztien aukeretarako eta hirirako eskubiderako berdintasuna izan dezaten lagunduko du eta, neurri handiagoan, soziabilitatea, topaketa eta eguneroko esperientziak sustatuko ditu, "stay at home" eta antzeko dinamikei eta bakardadearen arazoari aurre egiteko aukerak eskainiz. Izan ere, formulatuko den HAPO berrian lehentasuna pertsonek izango dute.	Gizarte kohesioa sustatzeaz gain, hizkuntzaren zein kulturaren transmisioa ematea sustatzen du.
DIMENTSIOA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
<u>Tokiko beharretara neurriratutako espazio publikoak aurreikusi al dira?</u> Aurreikusi da espazio publikoak tokiko beharretara neurriratutakoak izatea. Espazio librea handia izango da eta oinezko sareak zein bizikleta sareak egitea dago aurreikusia. Aurreikusi da ekipamenduak auzo guztietara hurbiltzea.	Eraginak hizkuntzan: erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilerari modu xumeagoan eragiten dio.
LEKUKOTZEA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
<u>Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babesten edo hobetzen ditu?</u> HAPO berriak, behin betiko bertsio osoan, dagokion Katalogoa egin	Bertako ondarea zaintzen du, bertako kultura, hizkuntza, natura, historia aintzat hartuta.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

beharko du. Horretarako, prozesuaren hasierako fase honetan egin beharreko eztabaidan, alde batetik, indarrean dagoen Plan Orokorreko Katalogoko irizpideak eta zehaztapenak kontuan hartzea proposatzen da eta, bestetik, dagokion eskumen sektorialak emandako dokumentazioa. Arlo horretan dagoen informazioa egokia eta nahikoa dela uste da, prozesuaren jarraipenean, gai horretan zehazten diren irizpideetan oinarrituta, elementu berriak sartzen edo beste batzuk baztertzen sakontzearen kalterik gabe, zenbait kasutan desagertu egin delako, besterik gabe. 14 planoan eta arloko administrazioak igorritako zerrendetan daude irudikatuta indarreko Katalogoan jasotako elementuak. Egin beharreko Katalogoak, gainera, Kultura Ondare Berrian xedatutakora doituko diren hirigintza-arauak ere izango ditu.	
Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk ditu inguruan, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak? Espazio publikoek inguruan beste instalazio batzuk izango dituzte, adibidez dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta abar.	Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du.

7.2.3. Oinarrizko ekipamenduak

IZAERA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatzen du? Udalak ekipamendu-arloko zuzkidura ugari ditu, eta HAPOak zuzkidura horiek finkatzea proposatzen da, lehen liburutegia zegoen eraikinean, Madalena ermitaren ondoan (trenbidearen oinezkoentzako etorbide berria irekitzearen testuinguruan) edo Agustinak eremuko biribilgunearen ondoan egin daitezkeen egokitzapenak, eraldaketak edo ordezkapenak egiteari uko egin gabe. Irakaskuntza-ekipamenduren bat zentraltasun handiagoko kokapen batera hurbiltzeko interesa aipatzen da. Xede horretarako partzela bat egokitzeko aukera bilatzea proposatzen da.	Gizarte bizitza eta kultur bizitza sustatzen du. Herritarren integrazioa ahalbidetzen dute.
Kultura, kirola, hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izango da? Bai, kudeaketa publikokoak izango dira.	Hizkuntza irizpideak ezartzen eta adosten dira.
DIMENTSIOA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
Tokiko beharretara neurriratutako ekipamenduak aurreikusi dira? Bai, udalerriak ekipamendu arloan dotazio asko ditu, egokitzapenak, eraldaketak edo ordezkapenak egitea kalterik gabe. Horretarako, Udalak beharrezkotzat jotzen du lurzati, eraikin edo ekipamendu lokal gehiago izatea hainbat tokitan. Prozesuaren jarraipenean auzo bakoitzeko eskalan sakonduko da beharren arabera.	Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilera zein ezagutza tasari modu xumeagoan eragiten dio.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

LEKUKOTZEA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
Ekipamenduak beste ekipamendu batzuetatik gertu daude eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzen dute? Dena konektatua dago eta zerbitzu-sare bat osatzen du.	Ekipamenduen erabilera sustatzen du eta, ondorioz, gizarte integrazioa eta erabilera areagotzen du.

7.2.4. Jarduera ekonomikoa

IZAERA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
Ekimenak lan aukerak sustatzen ditu? Dokumentuak udalerrian enplegua sor dadin sustatzea proposatzen du, landa-ingurunean lehen sektorea antolatzeko baldintzak arautuz eta ekipamenduak ezartzeko eta jarduera ekonomiko industrialak eta hirugarren sektorekoak hartzeko lurzorua aurreikusiz, baita enpresa-parkerako ere. Horrez gain, tokiko merkataritza bultzatzeko neurriak ere proposatzen ditu, eremu publikoaren antolamenduaren arloan planteatzen diren irtenbideekin koordinatuta.	Bertakoei lanean geratzeko aukera eskaintzen die, eta, ondorioz, langileen euskararen ezagutza eta erabilerari modu xumeagoan eragiten dio.
Sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak ezartzen ditu helburuen artean? Biztanleria aktibo landunaren eta enplegu-kopuruaren artean dagoen desproportzioa ikusita, indarrean dagoen Plan Orokorrean aurreikusitako jarduera ekonomiko berriak ezartzeko lurzoru eskaintza agortu dela eta, egokitzat jo da hiri-continuumean ekonomia-jarduera berriak ezartzeko lurzoru egokiak bilatzea, enplegua sortzen lagunduko dutenak, a priori logistika- edo merkataritza-arlokoak ez direnak, azken horiek bizitegiak dituen hirigunean kokatzen ahaleginduz. Enpresak hartu eta lanpostuak sortu ahal izango dira, udalerriko langabezia-tasa murriztea eta balizko errenteriar berriei lana ematea ahalbidetuz.	
DIMENTSIOA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
Tokiko beharretara neurriratutako lanpostuak sustatzen ditu? Ekonomia-jardueretako lurzoruaren eskaintzak enpresak hartu eta lanpostuak sortu ahal izango dira, udalerriko langabezia-tasa murriztea eta balizko errenteriar berriei lana ematea ahalbidetuz	Tokiko lan beharrei erantzuten die eta aldi berean kanpoko langile kopurua neurriratzeak ezagutza positiboki eragiten dio
LEKUKOTZEA	
HAPOan jasotakoa	**ERAGINAK HIZKUNTZAN**
Enpresa berriak eraikiko badira, euskararen hauskortasun txikiko gunean izatea aurreikusi da? Bai, biztanleria-dentsitate txikiko lurralde-eremu berrietan ezarriko baita, eta, beraz, ia ez du eraginik izango.	Intentsitatea txikitzen du.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

7.2.5. Jarduera soziokulturala

HAPOaren fase honetan ez dago jasota jarduera soziokulturalik egiterik. Ekipamendu eta espazio publikoetan jarduerak egiten direnean, Udalak jendeaurreko jardueretarako dituen hizkuntza irizpideak ezarriko dira.

7.2.6. Hizkuntzari lotutako funtsezko alderdiak

HAPOan jasotakoa	ERAGINAK HIZKUNTZAN
Jasota dago udalerriaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta eta ahal den heinean, ondorio onuragarriak edo positiboak ere bideratu beharko dituela udalerriko euskararen bilakaeran, Udal Plan Estrategikoaren beste erronka bati erantzuna emanez. HAPOaren exekuzio faserako ez da hizkuntza irizpiderik aipatzen, ez hizkuntza paisaiari lotutakorik, ez langileen hizkuntza gaitasunari, komunikazio hizkuntzari edo erabilerari lotutakorik. Nolanahi ere, Udalak eguneroko jardunean horiek denak hartzen ditu kontuan eta proiektua gauzatzen den bitartean horien guztien jarraipena egin beharko du, herritarren eskubideak bermatu daitezen. Neurri horiek Udalean hizkuntza ofizialak erabiltzeko Planean daude jasota eta komeni da HAPOa gauzatzean ere bertan jasotzea. Udalak dagoeneko indarrean ditu hainbat neurri, hala nola etorri berrientzako harrera edo doako euskalduntzea. Aipatu beharrekoa da HAPOaren erredakzioaren adjudikazioa kontratatzeko baldintza-agirian jaso zirela zerbitzu hori beteko duen enpresak bete beharreko hizkuntza irizpideak. Besteak beste, langileen hizkuntza gaitasuna, zerbitzua eman bitartean erabili beharreko hizkuntza eta Udalari aurkeztu beharreko dokumentazioaren hizkuntza. Alor horiei guztiei dagokienez, esan behar da herritarren, udal langileen eta ordezkari politikoen hizkuntz eskubideak bermatzera bideratutako hizkuntza irizpideak ezarrita daudela.	Bermatzen da ez diola egoera soziolinguistikoari kalterik egingo, edo modu positiboan eragingo diola.

8. HIZKUNTZA NEURRIAK

Planean ez dago jasota hizkuntza irizpideei lotutako neurri aringarri/zuzentzailerik. Aurrekari guztiak ikusi ondoren, proiektuaren momentu desberdinetan kontuan hartu beharreko hizkuntza irizpideak ezartzea proposatzen dugu txosten honetan, proiektuaren arlo hauei lotuta:

- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

  - Etxegintzari eta urbanizazioari lotutako lehiaketa publikoetan hizkuntza irizpideak ezarri: paisaia linguistikoa, herritarren eskura jarri beharreko dokumentazioa, karteleria eta abar.
  - Udalarekiko izapideak euskaraz ere egitea eskatu: proiektuak gutxienez ele bitan izatea.
  - Udalak sustatutako etxebizitzen gaineko promozio iragarkiak eskualdeko/herriko komunikabideetan jarri
  - Hizkuntza paisaiari buruzko irizpideak adostu, bete eta betearazi.
  - Udalak sustatutako etxebizitzetan hizkuntza paisaiaren irizpideak mantendu.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

- Sustapen pribatuko etxebizitzei hizkuntza paisaiaren inguruko gomendio irizpideak helarazi.
- Merkataritza/ostalaritza establezimenduak irekitzen direnean hizkuntza paisaia (web ataria, menuak, bestelako euskarriak) eta zerbitzua euskaraz ematera bideratutako neurriak proposatu: hitzarmena sinatu, euskarazko zerbitzuak eskaini, hizkuntza aholkularitza eta itzulpen zerbitzuak, langileak euskaraz komunikatzeko oinarrizko trebakuntza saioak (agurrak, esamoldeak, produktuen izenak, ...) gutxienez ulermena bermatzera bideratuak.
  Merkataritzan eta ostalaritzan lan egiten duten langileen hizkuntza erabilerak eragin handia du herritarren bizitzan, baita kanpotik etor litezkeen bisitarienean ere.
- Merkataritzako establezimenduei euskararen ziurtagiriak eskuratzea eta euskara plana egitea proposatu.
- Toki, ekipamendu eta abar izendatzerakoan toponimoak erabiliz gero, 179/2019 Dekretuaren 44. artikuluari jarraiki, honela jokatzea proposatuko da:
  - aztertuko da Errenterian bertan edo inguruan izendapenerako erabili daitekeen toponimorik dagoen, eta hala bada, beste irizpide erabilgarri batzuei baino lehentasun handiagoa emango zaie toponimo horiei. Horretarako, herriko toponimoak jasotzen dituen Toponimia de Errenteria azterlana erabiliko da.
  - lehentasuna emango zaie euskarazko izenei, gaztelaniazko izenen aldean.
  - Udalak Euskaltzaindiaren irizpena jaso ondoren egingo du proposamena, grafia egokia erabili dadin.
  - artifizio handiko izenak, izen exotikoak edo merkataritzari lotutakoak baztertuko dira, eta atzerriko hizkuntzetan daudenak ere bai.

- IZAERA:
  - Etxebizitza inguruetan espazio publikoak eta haur parkeak egotea bermatu, pertsonen arteko harremanak bertan bideratzen baitira neurri handi batean. Datu soziolinguistikoetan jasotakoaren arabera, Errenterian adin-tarte desberdinetako pertsonak elkartzen direnean, euskararen erabilerak gora egiten du.
  - Etxebizitzen behealdean lokal komunak eraikitzea, aurreko paragrafoan adierazitako arrazoi beragatik.
  - Hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako ekipamenduen erabilera sustatu.
  - Aisialdiko (kirola eta kultura) euskarazko eskaintza garatu, kohesiorako lagungarri gisa.
  - Ahal den heinean babes ofizialeko etxeak hartzerako garaian lehentasuna herritarrei eman, herriko gazteek aukera izan dezaten herrian geratzeko.

- DIMENTSIOA:
  - Espazio libreak aurreikusten direla aprobetxatuz, inguruko beharrei egokitu eta erabilerak aurreikusi, eta ahal den heinean heldu eta txikiak elkarrekin egon daitezkeen espazioak sortu.
  - Espazio publiko irekiek inguruan beste instalazio batzuk izatea bultzatu. Adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko zentroak, elkarteak eta abar.
  - Zuzkidurako bizitokiak eginez gero, herritar gazteei, besteak beste, zuzendutako alokairuko etxebizitzak izaten ahalegindu.
  - Plan Orokorraren aurrikuspenak fase desberdinetan gauzatu, denak aldi berean egin beharrean, edo denboran luzatu.

- NEURRI OSAGARRIAK/ARINGARRIAK: ETORRI BERRIENTZAKO NEURRIAK
  - Etorri berrientzat integraziorako neurriak eta planak: Ongi etorri harrera planarekin jarraitu
  - Etorri berriak erroldatzean euskara ikastera (dirulaguntzak, mintzalagun proiektua)/ hobetzera / euskarazko zerbitzuak erabiltzera bultzatu.

ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af

- Haur etorri berriei eskola errefortzua eman

9.- ONDORIOAK EDO EMAITZAK

Emaitzak aztertuz, esan dezakegu Errenteriak kanpotik datorren biztanle ez euskaldunak asimilatzeko gaitasuna baduela, EAEtik zein estatu barrutik eta kanpotik biztanle berriak etorrita ere azken 20 urteetan (1991-2011) euskara ezagutza mantentzeaz gain, erabilerak gora egin eta euskal hiztunen kopurua handitu egin baita.
Orain arteko joera hori izanik, espero izatekoa da etorriko diren biztanle berriak ere euskalduntzea; hortaz, ez du ematen Plan honek eragin kaltegarri nabarmenik izango duenik euskararen ezagutzan.
Erabilerari dagokionez, HAPOa mesedegarri suertatu daiteke euskararen erabilera handitzeari dagokionez, baldin eta aurreikusten diren espazio publiko zein ekipamenduetan euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzen badira.
Nolanahi ere, 8. puntuan aipatutako hizkuntza neurriak indarrean jartzeaz gain, Udalak ez du begi bistatik galdu behar egun dauden euskaldunen euskararen erabilera, eta etorriko diren biztanle berrien zein egun bizi direnen erabilera areagotzen ahalegintzen jarraitu behar du.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan.

Udal Hizkuntza Teknikaria Arantza Zabala	Hirigintzako Aholkulari Juridikoa Vicente Castiella	Udal Arkitektoa Xabier Agirre

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU40c40713-755e-4b24-8341-8ba78f99c1af**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2020HAPO0001-Hizkuntza-inpaktuaren txostena/Informe Impacto Lingüístico ()

Data / Fecha: 2022/05/13 07:59:20
Sinatzailea 1 / Firmante 1: MIREN ARANTZAZU ZABALA HUICI - 15953964Z

Data / Fecha: 2022/05/13 11:23:08
Sinatzailea 2 / Firmante 2: IGNACIO JAVIER AGIRRE UGARTE - 15943633X

Data / Fecha: 2022/05/16 07:58:42
Sinatzailea 3 / Firmante 3: JOSE VICENTE CASTIELLA CASTIELLA - 15928669L